

# ENPRESEN konfiantza

2023KO 1. HIRUHILEKORAKO  
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa


# 2023KO 1. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



## 0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2023ko lehen hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Ingurune ekonomikoak zertxobait hobera egin duela erakutsi dute emaitzek, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta, hortaz, ikuspegia ez da hain ezkorra.

INGURUNE EKONOMIKOARI buruzko enpresen aurreikuspenei dagokienez, % 4,8k soilik uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean. % 40,4k uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 54,8k, okerrera egingo duela.




# 1 FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, **aurreko hiruhilekoaren aldean** ikuspegia ez da hain ezkorra 2023ko lehen hiruhilekora begira, enpresen aurreikuspenen arabera. Zehazki, galdetutako enpresen % 19,6k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 57,4ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 23k okerragoa izango dela aurreikusten du.




## 2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta 2023ko lehen hiruhilekoan espero den JARDUERAREN bilakaeraren aurrean, enpresen % 9,6ren ustetan, hobetu egingo da, eta % 31,3ren ustetan, okertu. Laginaren gainerako % 59,1ek, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




### 3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortu zaigu: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, emaitzek iragartzen dute ESKABIDEen bolumenak hobera egingo duela apur bat, eta prezioak igo egingo direla. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun diotenen % 14,3ren iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 24,3ren iritzian, txikitu. Enpresen % 62,3ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




## 4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 28,3k espero du igo egingo direla, eta % 53,5ek, bere horretan jarraituko dutela.



## 5 ERRENTAGARRITASUNA

Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 89,1en arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da; enpresen % 10,9k soilik espero du etekin handiagoak lortzea.






## 6 INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek hain ezkorragoa ez den ikuspegia erakusten dute urteko azken hiruhilekorako, aurrekoarekin alderatuta. Jarraian ikusiko dugunez, badirudi enpresek moteldu egingo dituztela inbertsio-planak, egoera ekonomikoa nolabait ere okertu egingo dela aurreikusita.

Hala, INBERTSIOAren bolumenari dagokionez, enpresen % 11,7k uste du handitu egingo dutela 2023ko lehen hiruhilekoan; % 20,4k, berriz, inbertsio-bolumenak behera egingo duela. Hortaz, galdetutako enpresen % 67,8 inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago.



## 7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 80,4k erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 10,9k langile-taldea handitzeko itzaropena du, eta % 8,7k guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2023KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



## 8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak —inguruneari buruzko iritzia izan ezik— gehitu eta haztatzen baditugu, **46ko** konfiantza-indizea lortuko dugu. Horrek esan nahi du konfiantzak behera egin duela aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (**42**). Beraz, enpresek ikuspegi ezkorragoa dute ekonomiaren bilakaerari buruz, **2023ko lehen hiruhilekoari** begira. Gainera, indizearen balioa 50etik behera dagoenez, uzurtze-eremuan dago, eta beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutakoa baino apalagoa da. Espainian, esaterako, 48ko datua lortu zen urrian, eta Eurogunean, 47,8koa azaroan.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zehazki ez dutenak. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 20,4k uste du hobetu egin direla, eta % 16,3k, okertu egin direla. Beraz, % 63,3k uste du atzerriko salmentak mantendu egin direla.




## 9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZAri edo I+Gko EKIMENEi bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestatuen % 77 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 4,4k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




## 10 BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 80,4ren ustez, bezeroei KOB RATZEKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 17ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 2,6k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



## 11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA


Amaitzeko, inkestaturen % 73,5ek erantzun du bankuen FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 8,3k dio hobetu egin dela, eta % 18,3k, lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




## 12 | NEXT GENERATION FUNTSAK

Next Generation funtsek industria-sarea berroneratzeko duten garrantzia ikusita, beste bi galdera erantsi dira inkesta honetan: alde batetik, galdetutako enpresek funts horiek ezagutzen ote dituzten, eta bestetik, eskuratu ote dituzten. Ikus daitekeenez, enpresen % 75,1ek ezagutzen du plana, baina % 19,9k bakarrik eskuratu ditu funtsak.

Next Generation funtsak ezagutzen ditu?



Next Generation funtsak eskuratu ditu?








ADIERAZLEAK 2023AN IZAN DUEN  
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

## 12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken hiru hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



# Fitxa teknikoa eta metodologia

---

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.

---